

Berrikuntza eta teknologia, ur hornidura zaintzeko, prebenitzeko eta optimizatzen

AMVISAK teknologia berrietan oinarritutako irtenbideak eskaintzen ditu Uribarriko urtegiko uraren kalitatea monitorizatzeko eta Arakako edateko uren araztegiaren kudeaketa hobetzeko

Kalitatezko hornidura bermatzeko eta uretako ekosistemen eta ur masen egoera hobetzen laguntzeko, AMVISA gauzen Interneten (IoT) edo adimen artifizialean oinarritutako irtenbide teknologikoak bereganatzen ari da.



Uribarriko urtegiko uraren kalitatea kontrolatzeko plataformaren instalazioa

Alde batetik, **kalitatea kontrolatzeko sistema automatiko berri** bat instalatu da **Uribarriko urtegian, uraren kalitatea hainbat sakoneratan urrutitik karakterizatzeko** aukera ematen duena. **Plataforma flotatzaile** bat da, eta zunda bat eta profilagailu automatiko bat ditu, Internet bidez datuak bidaltzeko. Jasotako informazioari esker, AMVISAREN eskura dauden baliabide hidrikoen kalitatea ezagutu daiteke, eta egungo klima larrialdiko egoeran eta lehorte arriskuaren aurrean duten bilakaera aztertu.

Ekimena Smart AMVISA 2025 digitalizazio proiektuaren parte da, zeina gaur egun gauzatzen ari baita, Suspertze, Eraldatze eta Erresiliencia Planeko funtsen finantzaketarekin.

Halaber, **AMVISAK zuzenean lagunduko du DIGITAP proiektuan**, horren helburua izanik ura hornitzeko sistema zaintzea, prebenitzea eta optimizatzea, eta bertan jasotzen da biki digitalak garatzea, ura tratatzeko araztegiak eta alerta goiztiarrak egoki kudeatzeko tresna gisa. Proiektuan hainbat euskal erakundek parte hartzen dute: ACLIMA, Agrupa Laborategia, AQUADAT, CIMAS Berrikuntza eta Ingurumena eta GAIKER Zentro Teknologikoa.

Kasu honetan, plataforma digital bat ezartzea da helburua, hartuneen (Albina eta Uribarri) kalitate eta emariei buruzko datu anitz prozesatzeko, baita ur ekarpenen kalitatea kudeatzeko eta kontrolatzeko beste datu batzuk ere, ur masen osasunaren eta kalitatearen egoera hobetzeko, segurtasun hidrikoko mailak hobetuz. AMVISAK espresuki laguntzen du proiektuan, eskuragarri dagoen informazioa emanez, garatutako eredu ahalik eta sendoa eta malguena izan dadin.

DIGITAP proiektua Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Enpresa Elkarte Berritzaileei Laguntzeko Programak hautatu eta kofinantzatzen du.



Esan agur paperezko fakturari

Hiru hilean behingo faktura eta informazio ohar hau posta elektronikoz bidali diezazukegu; paper eta tinta kontsumoa murrizteko aukera jasagarria.

Nola eskatzen da?

Tramiteak kontratuaren titularrek edo posta jasotzeko baimena duten pertsonak egin ditzakete.

- Bidali mezu elektronikoa bat amvisa@vitoria-gasteiz.org helbidera, gaian hau adieraziz: **Fakturazio elektronikoa eskatzea**.
- Adierazi mezuan faktura zein helbide elektronikotan jaso nahi duzun, eta zehaztu eskaeran aipatzen den kontratuaren zenbakia edo hornidura puntua (etxebizitzaren helbidea).
- Erantsi NANaren kopia bat.

Gaur egun, gure kontratuetatik ia 20.000k faktura elektronikoa dute (%15ek), eta kopuru horrek gora egiten du hiruhileko bakoitzean.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu.
Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org

